

Zale amorratuak

- Egun on. Gaur, telesailzale amorratu batekin hitz egingo dugu. Kaixo, Eider.
- Hepa!
- Zu telesailzale amorratua zara, ezta? Zenbat kapitulu ikusten dituzu astean?
- Ufa! Ez dakit! Egunero ikusten dut kapituluren bat, edo bi, edo hiru...
- Egunero?
- Bai, bai, egunero. Inoiz ez naiz ohera sartzen telesailik ikusi gabe.
- Eta asteburuetan ere bai?
- Bai, jakina! Kapitulu berriak badaude, etxean geratzen naiz beti.
- Eta ez al zara aspertzen?
- Aspertu? Ez, ez, ez... batzuetan, kapituluak behin eta berriz ikusten ditut, eta, beste batzuetan, lo egin gabe egoten naiz pantailari begira!
- Eta non bilatzen dituzu hainbeste telesail?
- Bada, aldizkarietan irakurtzen ditut kritikak, beti ibiltzen naiz telesail berrien bila, eta, baten bat estreinatzen bada, ez naiz ez lagunekin, ez inorekin geratzen!
- Zurea ez da zaletasuna, pasioa da!
- Bai, telesailzale amorratua naiz!